



## **IZENBURUA:**

Pedagogia Sistemikoa: bere printzipioen erabilera gizarte esku-hartzean.

## **DESKRIBAPENA:**

Formakuntza honen helburua pedagogia sistemikoaren gakoak helaraztea eta hauen erabilera laguntzen ditugun pertsonen esku-hartzean ezartzea da.

Gizarte heziketaren arloan ikuspuntu sistemikoak, familia nahas-mahasen eta hauen ondorio diren gatazka miaketa errazten eta bizkortzen duten begirada eta esku-hartzerako tresnak eskaintzen ditu. Ondoren, pertsona hauek kontzientzia hartzen laguntzen eta ebazpena orientatu ahal izateko.

Gainera ikuspuntu honek eskaintzen dituen teknikak, egoerak era erraz eta bisual batetan erakusteko gaitasuna dauka, honekin laguntzen ditugun pertsonen ulermena, ikaskuntza eta aldaketa prozesuak errazten ditu.

Pedagogia sistemikoa sistemen ordena erakusten duen teoria da, ordena gauzak edo pertsonak bere berezko tokian egotea izanik. Familia gure lehenengo sistema da eta hemen aurkitzen dugu gure lehenengo lekua.

Zenbatetan gure bizitzan zehar "lekuz kanpo" aurkitu dugu gure burua gure familia barnean, anai- arreba nagusiarena egiten nahiz eta ez izan, gure gurasoak zaindu nahiz eta guri ez egokitu, gure behar pertsonalak asetzen dituzten bikoteak bilatu, edo eta egonezina sortzen dizkiguten famili- egoerak ezin begiratu( gaixotasunak, trastornoak, menpekotasunak, familia kideen bazterketa, zoritxarreko heriotzak, gaingitu gabeko doluak...)

Guzti honek gure eguneroko bizitzan gatazkak eta atsekabe sakoneko sentipen pertsonala sortzen du.

Pedagogia sistemikoak aldaketa prozesuak faboratzen duen begirada eta ikuspegi berri bat eskaintzen du.

## **HARTZAILEAK:**

- Gizarte esku-hartze, hezkuntza eta laguntzaren profesionalei zuzenduta.

## **HELBURUAK:**

- Pedagogia sistemikoaren oinarriak azaldu: sistemen ordenak.
- Familia sisteman ordena egoeraren isla egin.
- Lanabesak erabili bai famili- sistema esploratzeko bai korapiloak identifikatzeko, ordena egoera batera bideratuz.
- Pedagogia sistemikoak planteatzen dituen laguntza ordenak ezagutu eta hauek gizarte arloan gizarte hezitzailea non kokatu daitekeen hausnarketa sustatu.



**EDUKIAK:**

- Sistemen ordena.
- Laguntzaren ordenak.
- Orden hauen hausnartze lanabesak familiekin lan egiteko:
  - Mugimendu sistemikoak panpinekin
  - Irudien interpretazioa

**METODOLOGIA:** Praktikoa, dinamikoa eta parte-hartzailea. Arlo teorikoa jorratutako kasu eta egoerekin landuko da.

**TIPOLOGIA:** Tailerra aurrez-aurrekoa eta praktikoa izango da.

**DATA ETA ORDUTEGIA:** 2018ko urriaren 20an, 10.00etatik 14.00etara eta 15.00etatik 19.00etara.

**TOKIA :** Madariaga Etorbidea, 1, 4. Solairua. Deusto. Bilbao.

**SALNEURRIA:** 100 €

**HIZKUNTZA:** Gaztelera

**HEZITZAILEAK:**

**Biak**, haurtzaro eta familia gizarte hezitzaile bezala lan egiten dute, gizarte eta hezkuntza arloko profesionalentzat formakuntza ematen dute eta Agintzari GEK-eko pedagogia sistemikoaren garapenean, ikerketan eta formakuntzan lan egiten duen proiektu taldean parte hartzen dute.



**Isabel Heredia Lluva:** Gizarte Hezitzailea eta psikologoa.  
Pedagogia sistemikoan masterra.



**Susana Garbayo Ruiz:** Gizarte hezitzailea eta Pedagogoa.  
Pedagogia sistemikoan masterra.